

# JAIOTZE BASATIA

**DOINUA:** Trumoaia ortzi beltzean hoska.

**OHARRA:** Tarteko errepika, bertso-puntu bihurtua.

## 1

*Su ta gar* talde *heavy*-ak zakar,  
erritmo biziz ta horren azkar  
jotzen zuena abesten nuen  
guztia zenean apar  
marihuana, ron ta pattar ...  
Baina gerora guraso senak  
begi-kliska batez, kar-kar!  
Bilakatuz ama bakar ...  
Denborak ihes egin dit baina  
tempoak atzera nakar. (BIS)

## 2

Amatasunak dakartzan famak  
dira arinak edota zamak?  
Galdera soilak eskeintzen ditu  
zalantzarako aztarnak,  
eztabaidarako armak.  
Zergatik dena polita egin  
edo ezkutatu dramak?  
Badira andre andanak  
ama gisara erditu ahala  
erdibitzen diren amak. (BIS)

## 3

Ospitalea, ehundaka txokoz  
osatzen da ta, mila oztopoz  
inguratuak ama modura  
egin dezagun estropoz  
beldurrez, hangoz ta horkoz!  
Ez dut esan nahi osasungintza  
jarduten denik gorrotoz  
baina han preso, zero poz!  
Eraikin horrek eraisten gaitu  
pertsona gisa, apropos! (BIS)

## 4

Daisy, Shamira, Lur, Mari Axun  
izen-jatorri haina nortasun  
baina guztiak botiken menpe  
ez estimu, ez maitasun:  
*"Lasai erditu dezazun ..."*  
Ahalduntze maila loratu ahala  
zenbat arantza ta asun!  
Duda bat, uler nazazun:  
Haur bat mundura ekartzea gaur  
zergatik da gaixotasun? (BIS)

**5**

Jaio ostean, Lur magalean  
hainbat erizain begirale han  
galdezka niri "*Aita non dago?*  
*Tabernan edo kalean?*"  
Topikoen itzalean!  
"*Bakarrik nago*" esandakoan  
ahots-tonu apalean  
so gogorrak azalean  
*Normaltasuna* batzuentzako  
bakarra da normalean ... (BIS)

**6**

Erditze gelan gure morrontza  
nerbioak ta berezko lotsa  
gure buruak otzanduz bertan  
guztia baita arrotza,  
gela ta makinaren hotza.  
Oxitozina ta bulkadekin  
amaitzen da odol hotza  
medikuentzat, pagotxa!  
Amok garrasi egindakoan  
mututzen dugu ahotsa. (BIS)

**7**

Ama berriok a ze zoria!  
Gailenduz arren kategoria  
mediku jaunak aitakeriaz  
"*Aurkitzen zara lodia!*"  
Autoritate loria ...  
Nire amak ta amonek lehendik  
bizitako historia  
dudanetik memoria ...  
Zergatik da hain aspaldikoa  
gizonen lodifobia? (BIS)

**8**

"*Berdinak gara!*" dio mitoak,  
lelo ta mantra utopikoak  
non dira bada, indarkeria  
ta bortxa obstretikoak?  
Gezur azpian itoak!  
Noiz eraikiko dira denontzat  
ospitale etikoak?  
Parekidetzan, trinkoak  
han kristalezko sabaia hautsi  
dezan zoru pelbikoak. (BIS)